

## GARIZUMA ALDIARI EKITEKO OSPAKIZUNA Hausterre eguna

*Ospakizun hau elizan egin daiteke edo beren-beregi ospakizunerako girotutako batzar-lekuetan.  
Hausterre egunetik ahalik eta gertuen egitea komeni da.*

Elizak Garizuma deitzen duen aldiari ekingo diogu. Garizuma aldia aldatu ahal izateko egiten dugun "entrenamenduaren" antzekoa da eta, aldi berean, gure bizitzak hobetzeko aukera.

Kristauok Garizuma aldiko ibilbideari ekingo diogu; berrogei egunen ostean, guretzat garrantzitsuena den egunera, Pazko egunera, iritsiko gara.

Garizuma aldian, bihotz-berritzeko eta ibilbidearen amaieran, Pazkoan, Jesusekin bat egiteko dei egingo zaigu.

Hobera egin nahi dugula, Jesusen antzeko izan nahi dugula... adierazteko zeinu bezala, Elizak "hautsa ezartzen digu". Bihotz-berritzeko, geure buruarekin, besteekin eta Jainkoarekin adiskidetzeko deia da.

Jesusek ondorengo ebanjelioan azalduko digu nola egin dezakegun bide hori, entrenamendu hori...

EBANJELIOA: Mateo 6, 1-6. 16-18  
Azalpenak

### **Hautsaren ezarpena:**

Ohikunea egiten den bitartean, musika gozoa jarrita izan, norbere baitan bildu ahal izateko.

Seme-alabak beren gurasoekin hurbilduko dira. Ospatzaileak helduei ezarriko die hautsa eta hauek beren seme-alabei, kopetan gurutzaren seinalea egin eta esnez: "Jesus, egunez egun hobetzen joan nahi dugu":

### **Jainkoaren herriaren otoitza:**

- Aita Jainkoa, Pazkorako bideari ekiteko bildu garenok pozez bizi dezagula aldi berezi hau. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI.
- Aita Jainkoa, batasuna eta zoriona eskatzen dizkizugu gure familientzat. ESKA DIEZAI OGUN JAUNARI.
- Utzi tarte bat eskariak egiteko.

### **Elkarrekin otoitz egingo dugu**

Amaitu aurretik, piztutako kandela bana emango diegu partaideei. Elkarrekin, kandela piztuta dela, azken otoitza esango dugu.

Etxean, kandelak ospakizun hau eta Pazkora iristeko hasi dugun bidea gogoratuko dizkigu.

Garizuma aldian, kandela piztu eta familian Aitagurea errezatu dezakegu.

### **Azken otoitza: "Egunez egun hobetzen joan nahi dut"**

Kaixo, Jesus... gaur, beste ezer baino lehen, 'eskerrik asko!' esan nahi dizut.

Eskerrik asko, nire guraso, anai-arreba eta adiskideengatik...

Eskerrik asko, nire inguruko pertsona on guztiengatik.

Horrelakoxea izan nahi dut neuk ere: ona horiek eta Zu bezala.

Lagun ieza dazazu apurka-apurka hobetzen, zure antzeko izaten.

Adi egon nadila inguruan gertatzen denaz ohartzeko...

Poztasuna eraman dezadala nire ingurura...


Ingurukoak maita ditzadala...

Garizuma aldi hau entrenamendu ona izan dakidala

bide honetan... eta Pazko egunean, zurekin bat egiteko

Amen.

# CUARESMA



**Juntos  
caminamos  
hacia  
Jesús**